Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko urtarrilaren 13a, asteazkena — 7 — Miércoles, a 13 de enero de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## OIARTZUNGO UDALA

*Oiartzungo komertzio, zerbitzu eta ostalaritza jarduerak berrabiarazteko ez ohiko dirulaguntzak eskatzeko bigarren deialdia. BDNS (Identif.): 541407.*

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/541407).

Argitara ematen da Covid-19aren ondorioz kaltetuak izan diren Oiartzungo komertzio, zerbitzu eta ostalaritza jarduerak berrabiarazteko ez ohiko dirulaguntzak eskatzeko bigarren deialdiaren laburpena, azaroaren 17ko 38/2008 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Oiartzungo Udalaren webgunean (www.oiartzun.eus) eta Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke: (http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans):

*Lehenengo. Diru-laguntzaren xedea.*

Oiartzungo sukaldaritza, ostalaritza eta ostatu-jardueren esparruan dirulaguntzak ematea, jarduera horiek berraktibatzeko eta bultzatzeko, urriaren 26ko 36/2020 Dekretuak (azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuak aldatua) ekarri duen egoeraren aurrean. Izan ere, Dekretu horrek ostalaritza eta jatetxe zerbitzuak ixtea ekarri du, eta udalerritik kanpoko mugikortasuna mugatu du.

*Bigarrena. Diru laguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak.*

Oiartzunen txikizkako sukaldaritza, ostalaritza eta ostatu jarduerak dituzten pertsona fisiko edo juridikoak parte har dezakete deialdi honetan, baldin eta garatzen duten jarduerari eragin badio establezimenduen nahitaezko itxiera ezartzen duen urriaren 26ko 36/2020 Dekretuak, azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuak aldatua.

*Hirugarrena. Diru laguntzen zenbatekoa.*

Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 50.000 € euroko izendapena eginda dago, Oiartzungo Udalaren 2020 urteko aurrekontuko 1 0903.481.430.00.01.2020 zenbakidun partidaren kontura.

Oiartzungo Udalak baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du dauden eskaera guztiak aztertu ondoren. Horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko. Hala ere, dauden eskaera guztiei erantzuteko nahikoa ez bada, modu proportzionalean banatuko da.

*Laugarrena. Eskaerak non eta noiz aurkeztu.*

Eskaerak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuko ahal izango dira presentzialki edo egoitza elektronikoan 2021eko urtarrilaren 7tik 22ra.

## AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN

*Segunda convocatoria para la solicitud de subvenciones extraordinarias para la reactivación de las actividades comerciales, de servicios y de hostelería de Oiartzun afectadas por la Covid-19. BDNS (Identif.): 541407.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/541407).

Mediante la presente se procede a la publicación del resumen de las Bases para la segunda convocatoria de concesión de subvenciones extraordinarias para la reactivación de las actividades comerciales, de servicios y de hostelería de Oiartzun afectadas por la Covid-19, de conformidad con lo establecido en los artículos 17.3.b eta 20.8.a de la Ley 38/2008, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. El texto íntegro puede consultarse en la página web del Ayuntamiento de Oiartzun (www.oiartzun.eus) y en la Base de Datos Nacional de Subvenciones: (http: //www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans).

*Primero. Objeto de la subvención.*

Reactivación e impulso de actividades de restauración, hostelería y alojamiento en Oiartzun, ante la situación derivada del Decreto 36/2020, de 26 de octubre, modificado por el Decreto 38/2020, de 6 de noviembre. Este Decreto ha supuesto el cierre de los servicios de hostelería y restauración, limitando la movilidad fuera del municipio.

*Segundo. Condiciones para solicitar la subvención.*

Podrán acceder a las subvenciones las personas físicas o jurídicas con actividades de restauración al por menor, hostelería y alojamiento en Oiartzun que hayan visto afectada su actividad por el Decreto 36/2020, de 26 de octubre, por el que se establece el cierre obligatorio de establecimientos (modificado por el Decreto 38/2020, de 6 de noviembre).

*Tercero. Importe de las subvenciones.*

El importe total destinado al pago de estas subvenciones asciende a 50.000 euros, con cargo a la partida presupuestaria 1 0903.481.430.00.01.2020 del presupuesto del Ayuntamiento de Oiartzun para el año 2020.

El Ayuntamiento de Oiartzun podrá ampliar o reducir el gasto autorizado una vez analizadas todas las solicitudes existentes. Esto no supondrá una nueva convocatoria. No obstante, si la cantidad aprobada no fuera suficiente para atender todas las solicitudes, se repartirá de forma proporcional.

*Cuarto. Lugar y plazo para la presentación de las solicitudes.*

Las solicitudes podrán presentarse de forma presencial en el Registro General del Ayuntamiento o en su sede electrónica, desde el 7 hasta el 22 de enero de 2021.

EK\CV GAO-I-2020-06997

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein bitarteko erabilita aurkeztu ahal izango dira.

Oiartzun, 2020ko abenduaren 23a.—Alkatea. (6997)

Asimismo, las solicitudes pordrán igualmente presentarse a través de cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Oiartzun, a 23 de diciembre de 2020.—El alcalde. (6997)

EK\CV GAO-I-2020-06997